

PRENTSA-OHARRA

Gorrek eta entzumen urrikoek bideo-interprete zerbitzua erabil dezakete Udaltzaingoaren egoitzetan, bertan egin beharreko gestioekin laguntzeko

Iruñeko Udalak, ASORNArekin elkarlanean, *Svisual* plataforma ezarri du, zeinak konfidentzialtasun gorena bermatzen baitu

Iruñeko Udaltzaingoko instalazioetan jada *Svisual* bideo-interpretazio plataforma ezarri da. Nafarroako Gorren Elkarte ASORNAk egin du ekarpena, eta Udaltzaingoaren instalazioetara gestioak egitera, salaketak jartzera, etab. doazen entzumen urriko pertsonak entzun dezaketenekin komunikatzea ahalbidetuko du, zeinu-hizkuntzaren bidez. Herritarrendako Laguntza Bulegoan dago momentuz sistema hori. Hirugarren pertsona bat sartzen du elkarriketan webkamaren bidez, beste toki batean dagoen eta ASORNAk aukeratu duen zeinu-hizkuntzako bideo-interprete bat, zeinak denbora errealean lan egiten baitu erabiltzailearen eta poliziaren arteko komunikazioa ahalbidetzeko.

Zerbitzua eguneko 24 ordutan dago funtzionamenduan, asteko egun guztietan, urteko 365 egunetan zehar. Herritar guztiendako irisgarritasunik handiena lortzeko Udalaren ahaleginen barruan sartzen da; informazioa zein komunikazioa eta bizitzako beste alor batzuk irisgarri egiteko jarduketetan. Aisialdiari dagokionez, adibidez, Civivox sareko kultur programazioaren barruan, egokitutako hitzaldiak eta proiektzioak egon ohi dira. Izan ere, araudiaren arabera, administrazioen jarduketak herritar guztiekin harreman zuzenean gauzatu behar dira, aukeraberdintasunari bide emate aldera.

Herritarren Segurtasuneko eta Elkarbizitzako zinegotzi ordezkari Itziar Gómezek eta ASORMAko presidente Luis Larrea Salinasek gaur goizean sinatu dute zerbitzu horri bide emateko hitzarmena. Hitzartutakoak ez dio inolako gasturik suposatuko Iruñeko Udalari. Hartu duen konpromisoa da zerbitzu hori posible egiteko Udaltzaingoan beharrezkoak diren langileak eta baliabide teknikoak jartzea, zerbitzua abiatze aldera. Berez, Udaleko zenbait ekipamenduetan zerbitzuaren funtzionamendurako aplikazioa eta webkamak instalatu dira jada. Gainera, udaltzainek prestakuntza-ikastaroak egingo dituzte arian-arian. ASORNAk, bideo-interpretazio plataforma eta itzulpenetarako behar diren langileak jartzeaz gain, Udaltzaingoaren zerbitzu berria hedatuko du entzumen urriko pertsonen artean.





Sistema osoak konfidentzialtasun gorena bermatzen du, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoa hori garatzen duten arauak betez, interpreteek duten kode etiko propioaz gain.

Estatistiken arabera, Nafarroan jaio zirenetik gor diren 600 pertsona daudela estimatzen da, 1.000 jaioberrietatik 1. Baina kopuru horri bizitzan zehar hainbat gortasun-maila garatzen dituzten pertsonak gehitzen badizkiogu, kopuruak gora egiten du nabarmen: 65 urtetik gorako 6.000 nafar, eta 6 eta 64 urte arteko 7.000. ASORNA Nafarroako elkarte bat da. Elkarteko kide direnendako eta entzumen-arazoak dituzten beste lagun batzuekako baliabideak kudeatzeaz gain pertsona gorren bizi-kalitatea hobetzea bilatzen du, irisgarritasun arazoei buruz sentsibilizatu nahi ditu herritarrak, eta gizarteratzearen alde dihardu.

Iruñean, 2018ko otsailaren 9an

